

GIPUZKOA

Hasi da txotx denboraldia

200 lagun bildu ziren afaltzera Añota Sagardotegian. Bixente Artola masajista arduratu zen denboraldia irekitzeaz eta festa giroa izan zen nagusi

ELI AIZPURU AZPEITIA

11 enero 2015
01:00

Ohiturari jarraituz, Añota Sagardotegiak urteko zitarik garrantzitsuenetako bat ospatu zuen ostiralean, sagardo denboraldiaren hasiera, alegia. Bixente Artola masajista ordiziarra izan da aurten txotx denboraldiazabaldue duena, «Gora sagardo berria», deiarekin. Ondoren, Sebastian Lizasok, Andoni Egañak eta Iñaki Muruak honakoa abestu zuten:

«Horra sagardo bihurturikan/lehen ziren sagar aleak/zapore, usai, koloreakin/txipritin berritzaileak./ Edateko zain asko geudela/ bistan daude seinaleak./ Gora sagardo berria eta/ gora sagardozealeak». Abestu zuen Lizasok.

Danok dakigu pareko hori/ sagardo berria dala/ ta Añotari opa diogu/ denboraldi mundiala./ Bixentei berriz aholkutxo bat /tokatzen zaigun bezala./ Hainbeste gorputz goxatzen dunak,/ berea zaindu dezala», jarraitu Egañak.

«Sagardozeale iritsi zaigu/ sagardo berrian txanda./ Eta sagardo ona egiten badagonez hainbat planta/. Ez dezagula aferrik pasa/ gure edanaren langa. /Neurririk gabe goza dezagun/ baina neurrian edanda». amaitu zuen Muruak, gerturatu ziren hainbat eta hainbatek txotx egin aurretik. 200 lagun elkartu ziren gero afaltzera Añota sagardotegian eta goizeko ordu txikiak arte luzatu zen festa, Kupela taldearen erromeriarekin.



Irekiera. Bixente Artolak eman zion lehen tragoa sagardo berriari.



Reserva tus vuelos 2015
Vuela más por menos con Iberia Express
www.iberiaexpress.com



¡Ahorra con Direct!
Consigue un descuento de hasta el 60% en el seguro de tu coche.
www.directseguros.es

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.